



# HamaiKa

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA



JAVIER LANDETA,  
EUSKADIKO  
FUTBOL  
FEDERAKUNDEKO  
PRESIDENTE  
BERRIA

15. Zenb. Uztaila 2021

## Denboraldi oso ona



# KOPA, EUROPA ETA IGOERA BIKOITZA



AMOREBIETA BIGARREN  
MAILARA IGO DA



EMAKUMEZKOEN EUSKAL  
SELEKZIOA GARAILE HIRUKOAN



EMAKUMEZKOEN DEPORTIVO  
ALAVÉS 1. MAILARA IGO DA



**1/6**

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 Zenbakiak arrisku txikiagoa adieratzen du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundearen Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago. Funts hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funts horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.

# KONTUA ETA TXARTELA DOAN

(ITN eta UTB %0)

## Baldintzak:

- 600 euroko nomina edo 400 euroko pentsioa helbideratuta edukitzea.
- 6 ordainagiri zordunduta hiruhileroko likidazio-aldi bakoitzean.
- Online Bankako zerbitzua kontratatuta eta titularretako bakoitzaren telefono mugikorraren zenbakia jakinarazita edukitzea.
- Kontu honi lotuta dauden eta beren titularrenak diren txartel guztien kontsumo garbiak hiruhileroko likidazio-aldi bakoitzean, gutxienez, 300 eurokoa izan behar du edo 1.200 eurokoa likidazioaren aurreko 12 hilabeteetan.

\* OK Kontuaren baldintzak hiru hilean behin berrikusten dira. Baldintzetako edozein ez betetzeagatik, sortzapenaren ondorengo hilabetean, (hiru hilabeteko) likidazioaldi bakoitzeko 24 euroko komisioa kobratuko da zuzenean. Baldintzak hiruhileko likidazio bakar batean ez betetzekotan, 3.000 euroko batez besteko saldoa edukita, UTB -%0,80 izango litzateke.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

**Eskatu OK Plus Kontua.**  
OK bezeroentzako  
komisiorik gabeko kontua\*  
doako Visa Dual  
txartelarekin.

**kutxabank**

**ERRAZ  
HURBIL  
ORAIN**



3	EDITORIALA
4	HAUTESKUNDEAK
5	KOPA
6-9	LEHEN MAILA
10-11	BIGARREN B MAILA
12-13	EUSKAL SELEKZIOA
14	HIRUGARREN MAILA
15	RFEF LIGEN GRAFIKOA
16-17	EMAKUMEEN FUTBOLA
18-19	OINARRIZKO FUTBOLA
20-21	ARETO FUTBOLA
22	BERRIAK

©:  
**EUSKADIKO FUTBOL  
 FEDERAKUNDEA  
 FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL**

Erredakzio Batzordea  
 Comité de Redacción  
 Luis María Elustondo,  
 Kepa Allica, Haritz Gallastegi,  
 Unai Zabaleta y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
 Disenu eta Maketazioa  
 Diseño y Maquetación  
 Cantera Deportiva S.L.  
 Argazkiak. Fotografías  
 Federación Vasca de Fútbol

**HAMAIKA**  
 Euskadiko Futbol Federakundea  
 Julian Gaiarre 48 bajo  
 48004 BILBAO  
 Tfnoa: 94 473 19 00  
 info@euskadifutbol.eus  
 Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador  
 Laguntzailea 

Hamaika ez da bere laguntzaileen  
 iritziaz erantzule egiten  
 Hamaika no se hace responsable  
 de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIALA

### EUSKAL FUTBOLA, GUZTIONA ETA GUZTIONTZAT

**M**artxoaren lean Euskadiko Futbol Federakuntzaren presidentetzarako eta zuzendaritza-batzarrerako hauteskundeak egin ziren. Lerro hauetatik, hauteskunde-prozesua nabarmendu nahi dut, jardunbide egokien adierazgarria baita eta erakusten baitu aukera desberdinak egoteak ez duela hausturaren eta esperientzia txarren sinonimoa izan behar. Horregatik, lehenik eta behin, errespetu osoa eta besarkada handi bat Koikili Lertxundirentzat eta bere taldearentzat.

Bestela ezin daitekeenez, gure helburu bakarra da Euskadiko Futbol eta Areto Futbol osoaren presidentea eta Zuzendaritza Batzordea izatea, hiru lurralde-federazioekin etengabe koordinatuta, eta horien sustapena eta bilakaera bilatzea, hemendik 2024ra arte proiektu plural eta integratzaile bat gauzatu ahal izateko, benetako berdintasunean oinarrituta, euskara komunikaziorako oinarrizko elementua dela, gure estamentu guztiei etengabe lagunduz, areto-futbolaren eta futbolaren ganga giltzarria diren epaile, jokalaria, entrenatzaile eta klubei.

Hori guztia plan estrategiko baten garapenean oinarrituz, gardentasuna, osotasuna, balioak eta eraldaketa digitala funtsezko elementuak direla. Eta kapitulu berezi bat eskainita gure elementu gailenei, kategoria guztietako gure selekzioei, piramideen erpinak diren Euskal Selektzioekin, zeinak euskal futbolaren irudia baitira munduan eta gure gizartearen kohesio-elementua. Arerriorik onenak bilatuko ditugu haienentzat, eta munduko futbol-panoraman merezi duten lekua.

Denboraldi zail-zaila amaitu berri dugu, alde guztien konpromiso eta lan handiagatik salbatu ahal izan dena. Alde horretatik, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiegu bai federazioei, bai gainerako estamentuei, oso egoera txarrean eta osasunerako arrisku handian, onena eman baitute konpromiso garrantzitsu hau aurrera ateratzeko.

Eta eskumuinak zaleei, pandemia-garai honetako kalteturik handienak baitira, gure kirolaren funtsezko elikagaia, gure kirola existitzeko arrazoia, haiek gabe erabat umezurtz sentitu baikara. Milaka eta milaka bazkide, gure futboleko eta gure areto-futboleko jarraitzaile; gure zelaietan, gure kantxetan berriro izateko irrikan gaude.

Bizi ditzagun udako egun hauek 2021/2022 denboraldiari normaltasunetik hurbilagoko baldintzetan ekingo diogulako konfiantzaz, ilusioz gure futbolak eta gure areto-futbolak jarrai dezaten Euskadiko gizartearen kohesiorako eta integraziorako elementu izaten. Eskerrik asko denoi.

**Javier Landeta.**  
**Euskadiko Futbol Federakundearen Presidentea.**



# JAVIER LANDETA, EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEKO PRESIDENTE BERRIA

*Javier Landeta da Euskadiko Futbol Federakundeko presidente berria, 86 boto lortu baitzituen; beste hautagaiak, Koikili Lertxundik, 29 lortu zituen.*

David Novo

**J**avier Landeta (Leioa, 1959ko martxoaren 5a) Euskadiko Futbol Federakundearen presidente berria da joan den martxotik, Federakundeko hauteskundeetan Koikili Lertxundi gainditu eta gero; pandemiak eragindako murrizketen ondorioz, Ipuruako (Eibar) instalazioetan izan ziren hauteskundeak.

Horrela, Leioako agintari ohiak Luis Maria Elustondoren lekukoa hartuko du, azken zortzi urteetan euskal futbolaren ordezkari nagusia izan baita. Landetak eskerak eman zizkien Batzar Nagusian parte hartu zuten guztiei, eta parte-hartze handia nabarmendu zuen. Bere iritziz euskal futbola oso bizirik dagoela adierazten du horrek. "Lau urte gogor izango dira, baina baita ilusioz beteak ere. Gure programaren hamaika ildoak ezagutzen dira, eta lehenengo egunetik egingo dugu lan. Lana eta lana hitzematen dugu, eta ideiak eman ditzaketenek ere gurekin bat egitea nahi dugu, eta zailtzarik gabe eskua luzatzen diogu Koikiliren hautagaitzari, ez baitugu arazorik haiekin hitz egiteko", esan du Landetak.

Euskal Federakundeko zuzendaritza batzordearen osaera hau da, beraz: Javier Landeta (presidente); Jon Larrea (presidenteorde betearazlea); Kepa Arrieta, Manu Diaz eta Iñaki Gomez Mardones (Lurraldeetako Federazio-



etako presidenteordeak); Enrique Gómez (diruzaina); Jose Maria Artola, Mikel Azkune, Beatriz Bermejo, Joseba Gamboa, Beñat Larrañaga, Juan Maria López, Juan Luis Martín, Jose Angel La-

brador, Ricardo Martínez, Jose Manuel Villar eta María Lourdes Zorrozuza (kideak); Patri Allende, Roberto Perez eta Ilbon Urizar, aholkulariak eta Kepa Allica, idazkari orokorra.

## EPAILE, ENTRENATZAILE ETA ARETO FUTBOLEKO BATZORDEETAN ERE BERRIKUNTZAK

**J**avier Landetak dagoeneko izendatu ditu Epailen Euskal Batzordeko (Ilbon Urizar), Entrenatzaileen Batzordeko (Roberto Perez) eta Areto Futboleko (Patrik Allende) presidenteak. Hiru estamentu horien osaketa onartzeke dago.



## ERREALAK BERE HISTORIAKO HIRUGARREN KOPA LORTU DU, EUSKAL FINALEAN ATHLETIC GAINDITU ONDOREN

*Penalti puntutik Oyarzabalek sartutako gol batek bere lehen Errege Kopa eman zion Errealari 1987tik, bere historiako hirugarrena, Athletic 0-1 gaindituta.*

**David Novo**

A rconada, Gorriz, Gajate, Lopez Ufarte, Larrañaga, Zamora, Beguiristain, Bakero eta kideek baidute erreleboa txuri-urdinen ido-

loen aldarean. Errealak kopako titulu bat lortu zuen hiru hamar-kada ondoren; izan ere, Athletic mendean hartu zuen Oyarzabalen tanto bati esker; 63. minutuan sartu zuen gola, hamaika metrotatik, Iñigo Martinezek egindako penalti baten ondorioz, Cartujako estadiogan atek itxita jokatu zen partida batean. Imanol Alguacilek entrenatzen duen taldeak puntaren puntan amaitu du 2020ko edizioari zegokion txapelketa bikaina, pandemiaren erruz urtebete atzeratu behar izan dena. Gipuzkoarrek jokatu zituzten zazpi partidak

irabazi zituzten, ez zuten luza-penik behar izan, Real Madril atzean utzi zuten erakustaldi handi baten ondoren eta txapelketako talde golegileena izan zen. Final handian ere aurkaria baino gehiago izan zen eta, beraz, historiako laugarren euskal finala irabazi zuen. 2020ko Athletic-Real hau baino lehen, kopako beste euskal derbi hauek jokatu dira historian zehar: 1910ean, Athletic eta Vasconia Sporting Club (Donostia); 1913an, Racing Club (Irun) eta Athletic eta 1927an, Real Union eta Arenas.

**Coca-Cola**



# ALAVESEK GARAIZ ERREAKZIONATU ETA SALBATU EGIN DA

*Javier Callejaren etorrera erabakigarria izan da, 15 puntu lortu baititu jaitsiera postuetatik atera duen talde babazorroaren buru izan den 9 jardunaldietan.*

**Iker García**



## EUSKAL FUTBOL FEDERAKUNDEAREN OROIGARRIA MENDEURRENAGATIK

Javier Landeta Euskadiko Futbol Federakundeko presidentek Alfonso Fernandez Alaveseko presidenteari oroigarri polit bat eman zion, talde gasteztarraren mendeurrena dela eta. Babazorroek 100 urte bete dituzte sortu zirenetik, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte hori ospatzeko.

Alavesek Lehen Mailan jarraituko du beste urtebetez, bigarren itzuliaren erdialdean Javier Calleja iritsi ostean izandako

erreakzioaren ondoren, eta denboraldi berean hirugarren entrenatzailea izan da, Pablo Machin eta Abelardo Fernandez ostean.

Liga amaitzeko 9 jardunaldi falta ziren eta taldea azken postuan zegoen, baina bi garaipenek eta bi berdinketek eremu arriskutsutik irtetea ahalbidetu zieten.



Eskoriatza Kalea, 5 | 01013 Vitoria - Gasteiz | T. 945 27 90 11

**AUTOCARES | COCHES DE LUJO | TAXIS | LIMUSINAS  
GRUPOS | EMPRESAS | ESCOLARES | EVENTOS**

# ATHLETICEK ETENGABEKO GORABEHEREKIKO DENBORALDIA IZAN DU

*Talde zuri-gorria berdinketa gehien lortu zituen taldeetako bat izan zen denboraldian (13) eta Ligako gol gutxien jaso zituen bederatzigarren taldea ere bai.*

**Iker García**



**A**thletic Clubek denboraldi irregularra egin du ligan lortutako berdinketa ugarien ondorioz, eta ezin izan ditu txapelketa osoan bi garaipen jarraian lortu. Izan ere, bere bolarik onena Ligan jarraian galdu gabeko 9 partidekin iritsi zen, baina bi garaipen besterik ez zituen lortu, eta zenbait jardunalditan Europako postuetan sartzearekin amets egin zuen arren, hainbesteko berdinketek kalte egin zioten.

pelketa osoan bi garaipen jarraian lortu. Izan ere, bere bolarik onena Ligan jarraian galdu gabeko 9 partidekin iritsi zen, baina bi garaipen besterik ez zituen lortu, eta zenbait jardunalditan Europako postuetan sartzearekin amets egin zuen arren, hainbesteko berdinketek kalte egin zioten.

**TXURI-GORRIEK EZ DUTE BERTSIORIK HOBERENA ESKAINI BI FINALETAN**

**T**alde zuri-gorriak denboraldi honetan titulu bat lortzeko bi aukera izan ditu, bi Errege Kopetan finalista izan baita; bata, iaz pandemiak bertan behera utzi eta Errealaren aurka aurten jokaturakoa eta bestea, Bartzelonaren aurka jokaturako aurten-go. Bilbotarrek bi finalak galdu zituzten gol bat bera ere sartu gabe.

**EL HOTEL GRAN BILBAO** es una factoría de emociones donde te invitamos a formar parte de nuestro Lifestyle, con un estilo de vida saludable, deporte y arte en cada rincón del hotel.

Nuestras habitaciones están valoradas por la comodidad, luminosidad y el descanso que necesitas. Además, podrás disfrutar de nuestro desayuno buffet con cocina en vivo y con recetas healthy diseñadas por una nutricionista. En nuestro restaurante podrías disfrutar de la gastronomía local, sabores internacionales y de opciones saludables, así como de menús especiales para celebraciones.

**HGB**  
HOTEL GRAN BILBAO



#HotelGranBilbao @HotelGranBilbao

Calle Indalecio Prieto 1 | 48004 Bilbao | 944 32 85 75 | hotel@hotelgranbilbao.com



# SD EIBAR MAILAZ JAITSI DA 7 URTEZ GOREN MAILAN IBILI ONDOREN

*Eibarrek agur esan dio Estatuako futbolaren maila gorenean jarraitzeko ametsari, golak sartzeko duen gaitasun eskasaren ondorioz jaitsi egin baita.*

**Iker García**



**GAIZKA GARITANO  
TALDE  
ARMAGINAREN  
AULKIRA ITZULI DA**

**S**D Eibarrek badu en-trenatzailea datorren denboraldirako. Talde armaginak Gaizka Garitanoren zerbitzuak izango ditu berriro ere, garai batean hiru denboraldiz zuzendu ondoren itzuli egin baita. Bera izan zen, hain zuzen ere, talde armagina Lehen Mailara igo zuena eta lehen denboraldian maila gorenean zuzendu zuena.

**T**alde armaginak Lehen Mailari agur esan dio, azken 7 denboraldietan bertan egon ondoren, bigarren itzuli txar baten ostean,

talde gorri-urdina ez atzera ez aurrera geratu zen eta jaitsiera postuetara joan zen. Bi izan dira mugako taldearen gaitz nagusiak. Lehenengoa, bere gol

falta, Mendilibarren taldea izan da gol gutxien egin duen bigarren taldea. Bigarrena, Eibarrek Ipuruan lortutako bi garraipen bakarrak.



## Goco Tour

- **Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL**
- **BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.**
- **VEHÍCULOS DE: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 PLAZAS**
- **ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)**
- **SERVICIO DE TAXI**

**Barrio Arregui | Polígono Cóndor  
Edificio C | 48340 AMOREBIETA  
T. (+34) 94 630 82 50  
24 HORAS: T. 665 295 623  
E-mail: [gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com)  
Web: [www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)**



## ERREALA EUROPARAKO SAILKATU DA BERRIRO, DENBORALDI BIKAINA EGIN ONDOREN

*Talde txuri-urdinak bosgarren bukatu du eta Europarako sailkatu da berriro. Gainera, Kopa irabazi du Athleticen aurka.*

**Iker García**



Errealak denboraldi bikaina egin du, beti goiko postuetan egonda, eta, horri esker, bosgarren postuan itxi du kanpaina, on-

dorioz, datorren urtean Europa Liga jokatzeko eskubidea lortu du. Imanol Alguacilen taldea txapelketako seigarren egileena izan da.

**BI FILIALEN MAILA-IGOERAK, KANPAINA BIKAIN HAU PRIMERAN BUKATZEKO**

Gizonezkoen beste bi talde seniorren igoerak izan dira Donostiako taldearen kanpaina bikain honi amaiera bikaina eman diotenak. Bigarren Mailara igotzea lortu zuen Sansek Extremaduran Algeciras irabazita. Bestalde, Errealak C-k Bigarren RFEF berrian jokatuko du datorren denboraldian.

Ligan emaitza ona lortzeaz gain, Errealak titulu bat gehiago ere badu, iazko denboraldian atzeratu zen Kopa eskuratu ondoren.

Distribuidor oficial:

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VIÑEDOS

AMAREN

*Nuestra especialidad, los buenos VINOS.*



Teléfono 943176075  
aral@aral97.com

**aral97.com**



# ERREALA B BERRIZ ERE ZILARREZKOA DA 60 URTE GEROAGO ETA AMOREBIETAK BALENTRIA HANDIA EGIN DU

*Hiru euskal taldek jokatu zuten LaLiga SmartBankera igotzeko play off-a Extremaduran bi asteburutan.*

David Novo

**E**rreala Bk eta Amorebietak ez dute inoiz historiako azken Bigarren B maila ahaztuko. Donostiarrek eta zornotzarrek Bigarren Mailarako igoyerarekin amaitu zuten denboraldi historikoa, gipuzkoarrek 1962tik zapaldu ez zuten maila. Bizkaitarrek, bestalde, datorren denboraldian egingo dute debuta futbol profesionalean, Brontze Mailako lau hamarkada baino gehiagoko historian gogoratzen den balentria handienetako bat lortu eta gero.

Fase erregularrean multzoko txapeldun geratu ondoren, Xabi Alonsoren mutilek Andorra kanporatu zuten (2-1) play offeko lehen kanporaketan, partida bakarrera eta egoitza neutralean, eta Algeciras ere gainditu zuten (2-1), beste behin ere luzapenaren ondoren, igotzeko bigarren eta behin betiko kanporaketan. Amorebietak, 2B mailako



Real Sociedad B



Amorebieta

16 talderik onenen multzoan sartu ondoren denen harridurarako, 0-1 irabazi zion Linaresi, IV. multzoko txapeldunari, eta zazpi egun geroago benetako balentria egin zuen Badajoz mendean hartuta (0-1), bere zelaietan, Vivero Berrian.

Bilbao Athletic, iguera fase

honetako gure hirugarren ordezkaria, izan zen zorte txarrena izan zuena. Bilbao Athleticekoak II. multzoko bigarren sailkatu gisa sartu ziren play off-era eta lehen kanporaketan Celta Vigo B taldea atzean utzi zuten (2-1), baina finala galdu egin zuten Burgosen aurka 1-0.



ASTORE



## TALDEAREN ERAKETA KALTERAKO IZAN DA EUSKADIRENTZAT, LAU JAITSIERA IZAN BAITITU

*Portugalete, Alaves B, Barakaldo eta Leioa izan dira II. Multzoaren konfigurazio geografikoagatik eta jaitsiera postuen gorakadagatik kaltetuenak.*

David Novo

**D**enboraldi honetako lehiaketa sistema bi-txiak (bi fase erregularretan banatutako txapelketa batekin), II. Multzoko egitura desorekatuak (euskal ordezkariz guztiak azpitalde berean bildu zituen) eta jaitsierako plazak hazi izanak markatu dute 2.B maila, eta aurten azken bost postuetatik lautan euskal taldeak egon dira.

Portugaletek, Alaves Bk, Barakaldok eta Leioak ezin izan



Barakaldo-Alaves B

diote mailari eutsi, eta 28 jardunaldi jokatu ondoren Hirugarren RFEFra jaitsi dira; jardunaldi horietan gure taldeetako batzuek hamar eguneko konfinamendu bat baino gehiago izan dituzte, gainera, taldean Covid-19 kasuak egon direlako.

**REAL UNION RFEF LEHENENGO MAILARA IGO DA**

**R**eal Unionek, txapelketaren lehen fasean 2. A mailara igotzeko aukera ia eskura izan zuen eta argi eta garbi utzi zuen RFEFek sortutako maila berrian parte hartzeko eskubidea zuela, aldi honetako 36 talde onenak bilduko baitira maila horretan (gehi LaLiga Smark Banketik jaitsitako lauak). Irungoak, beraz, RFEFren lehen mailan lehiatuko dira.

**ARENASEK BIGARREN RFEF MAILAN JOKATUKO DU**

**A**renas Clubek nota onarekin amaitu du kanpaina zaila. Gorri-beltez mailari eutsiko ziotela laster ikusi zen Gobelara itzultzean, joan den urteko sailkatze arazoak amesgaizto soil bat izan zirela argi utziz, Arenakoak Fadura joan zirenean. Historikoa, beraz, RFEFren bigarren mailan izango da.

 **Sport·designer**



GRUPOCAMPUS


precio / prezioa

9,90 €

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: [www.sport-designer.com](http://www.sport-designer.com)





# EMAKUMEZKOEN EUSKAL SELEKZIOA FORMAN

*Emakumezkoen Euskal Selekzioak hiru urte baino gehiago zeramatzan lehiatu gabe, eta Argentina eta Venezuela gainditu zituen Zubietan jokaturako txapelketa batean.*

**David Novo**

**E**uskal Selekzioak irabazi zuen 'Basque Country International Women's Cup' izeneko emakumezkoen futbol txapelketaren lehen edizioa, apirilean Zubietako instalazioetan egin zena, triangelu-formatuan.

Argentinako eta Venezuelako selekzioek eta Iñigo Juaristik entrenatzen duen konbinatuak maila handia erakutsi zuten ikusleentzat erakargarria izan zen txapelketan, are gehiago kontuan hartuta Euskal Selekzioarentzat lehen konpromisoak zirela 2017ko azaroan Txekiar Errepublikaren

aurka jokatu zuenetik, entrena-tzaileak hautatzaile gisa egin zuen debutean.

Lehen norgehiagokan, argentinarek Venezuela gainditu zuen, buruz sartutako golari esker (1-0), eta txapelketako lehen hiru puntuak eskuratu zituzten. Bigarren partidan gure selekzioak mendean hartu zuen Argentinakoa Yulema Corresen golari esker, emozio guztia azken partidarako utziz. Neurketa erabakigarrian hainbat aukera izan zituzten bi taldeek, baina 45 minutuetan ez zuten golik sartu. Berdinketa, ordea, Euskal Selekzioaren mesederako izan zen, txapelketa irabazi baitzuen 4 punturekin, Argentinako konbinatuak 3 puntu baitzituen eta Venezuelakoak bakarra.

"Ez nuen zalantzarik maila ona izango genuela, Lehen Mailako jendea dugu eta hasieratik erakutsi dugu hala garela. Argentinaren aurka partida bikaina egin dugu. Agian bigarren partidan, aldaketen



Euskal selekzioaren plantilla

gorabeherekin, formatu honen ondorioz partidan sartu arte... Baina oso ondo amaitu dugu", adierazi du Iñigo Juaristik Kopa jaso ostean. Entrenatzaileak azpimarratu duenez, "Polita da beste selekzio batzuen aurka jokatzeko aukera izatea".

Nazioarteko konpromiso-engatik jokalaria nabarmen batzuek etortzerik izan ez zuten arren, honela osatu zen deialdia:

**Athletic Club:** Eunat Arraiza, Ane Azkona, Yulema Corres, Andrea de la Nava, María Diaz, Sophie Istillart, Amaia Peña, Marta Perea, Naroa Uriarte, Ohiane Valdezate y Ainhoa Vicente.

**Eibar:** Nerea Abances y Sheila Elorza.

**Erreala:** Leire Baños, Ane Etxezarreta y Itxaso Uriarte.

**Deportivo de La Coruña:** Ainize Barea 'Peke'.

**Real Madrid:** Maite Oroz.

Arazo burokratikoaren ondorioz Nigeriako selekzioa ezin izan zen etorri 'Basque Country International Women's Cup' honetara, lau talderen arteko lehia izateko asmoa zen arren.



Agintariak, Txapelketaren aurkezpenean



## 13 #EUSKAL SELEKZIOA





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 Bilbao  
Tlf.: 94 473 19 00  
Fax: 94 473 22 21

La información en un

**click**

www | |

Web | [www.euskadifutbol.eus](http://www.euskadifutbol.eus)  
Twitter | [@EFF\\_FVF](https://twitter.com/EFF_FVF)  
Instagram | [EFF\\_FVF](https://www.instagram.com/EFF_FVF)

### ALZOLAren ECOBOXa INGURUGIRO AZTARNA TXIKIAGOA.



ECOBOX de ALZOLA		IMPACTO AMBIENTAL DEL ENVASE POR CADA 33cl	
Respecto a una botella de PET de Alzola Basque Water de 33cl:		ECOBOX	9,8 gr CO <sub>2</sub> eq * 100%
71% ↑	Materiales renovables	BRIK	57 gr CO <sub>2</sub> eq * 483%
92% ↓	Material de envase	LATA	84 gr CO <sub>2</sub> eq * 755%
69% ↓	Consumo de agua	* Gramos de CO <sub>2</sub> equivalente, unidad que aglutina las emisiones de gases de impacto medioambiental. Datos del estudio de Ecodiseño elaborado en colaboración con Inedit, Ithobe y Ecoembes.	
86% ↓	Huella de carbono		

EL ENVASE PARA AGUA MINERAL  
CON EL MENOR IMPACTO AMBIENTAL



# GERNIKA, REAL SOCIEDAD C ETA SESTAO RIVER TALDEAK IGO DIRA, EZUSTEKOAK EGON DIREN KANPAINAN

*Gernikak eta Real Sociedad C-k 2. RFEFera egin zuten jauzi, liga erregularrean zuzeneko bi igoera postuak eskuratuta. River, aldiz, play off-a irabazi duelako igo da.*

David Novo

**G**ernika (Aitor Gandiaga jokalariaren heriotzaren tragediari aurre egin ez), Real Sociedad C (2021 paregabea osatuz) eta Sestao River (pisu bat gainera kenduz), izan dira Bigarren RFEFera (garai bateko 2. B mailara) jauzi egin duten hiru euskal taldeak. Gernikarrak buru izan dira txapelketan eta Real C-rekin batera igo dira, fase erregularreko lehen bi sailkatuak direlako; aldiz, Ezkerraldekoek Anaitasuna (1-0) eta Urduliz (2-0) gaindu behar izan dituzte play offean. Pasaia, Deustuk eta Gasteiz ere igotzeko kanporaketak jokatu zituzten.

Espainiako Futbol Federazioak egin zuen kategoria nazionalen berregituraketaren ondorioz, denboraldi batean Territorial mailara sei talde ez jaisteko borroka handia egin behar izan zen. 30 jardunaldiren ondoren, azken sei postuetan talde hauek zeuden ordena honetan: Santurtzi, Balmaseda, Somorrostro, Sodupe, Ariznabarra eta Urgatzi. Aldiz, Amurrio (Arabako txapelketa), Beti Gazte (Gipuzkoako ordezkaria) eta Uritarrak (Bizkaikoa) Hirugarren mailan izango dira datorren denboraldian.



Gernika



Real Sociedad C



Sestao River





# EUSKAL TALDEEN BANAKETA, RFEF 1., 2. ETA 3. KATEGORIETAN

**D**ibisio nazionalak berregituratu ondoren (orain 1., 2. eta 3. RFEF izan-

go dira), hauek dira horietako bakoitzean parte hartzen duten euskal taldeak. Lehenengoan: Bilbao

Athletic eta Irungo Real Union. Bigarrenengan: Arenas, Gernika, Sestao River eta Real Sociedad C. Hirugarrenengan: Anaitasuna, Amurrio, Aurrera de Ondarroa, Barakaldo, Basconia, Beasain, Betti Gazte, Cultural de Durango, Deportivo Alaves B, Deusto, Lagun Onak, Leioa, Pasaia, Portugalete, Santutxu, San Ignacio, Tolosa, Urduliz, Uritarra eta Vitoria.

The advertisement features a green background with the text "joan-etorriaren atsegina" in a stylized font. It includes the Vallina Bus Auto logo, a photograph of a bus, and a photograph of a dark sedan. At the bottom, there are three rounded rectangular buttons containing the text "autoak", "autobusak", and "microbusak".

**vallina**  
BUS AUTO

**IBILGAILUAK GIDARIAREKIN**

943 39 38 48  
Donostia-San Sebastián

autoak  
autobusak  
microbusak



## ERREALA, TXAPELDUNEN LIGATIK GERTU; SD EIBAR, MAILARI EUSTEA LORTUTA ETA ATHLETICEK URTE GRISA IZAN DU

*Donostiarrek, armaginek eta bilbotarrek alderdi positiboak hartu behar dituzte aintzat pandemiak markatutako denboraldi gogor honetan, eragina izan baitu Ligan.*

**Txemi García**

**D**enboraldi amaierara iristean, balantzea egin behar da, eta, ñabardurak ñabardura, gure hiru ordezkariak badute arrazoirik alde onak nabarmentzeko eta txarrak azpimarratzeko, zuzentzeko.

Errealak goraiatzeko moduko mailari eutsi zion, eta azken jardunaldietara arte Champions League-a jokatzeko aukera ematen duen hirugarren postua lortzeko borrokan ibili zen. Natalia Arroyok zuzentzen duen taldea oso erregularra izan zen bere errendimenduan, baina azkenean hiru talde indartsuenen aurrean amore eman zuen kanpaina honetan: Bartzelona, Real Madril eta Levante. Penagarria izan zen txuri-urdinentzat Kopako final-laurdenetan erortzea, apirilean. Atletico Madril nagusitu zen gutxigatik.

Athleticek puntu gehiago beharko ditu denboraldi berriari begira. Aulkian erreleboa hartu ondoren, Iraia Iturregirenei kosta egin zitzaion jaitsieratik behin betiko ihes egitea. Lau garaipen jarraian lortu zituzten, baina ondoren zuloan sartu eta erreazio ona bertan behera geratu zen.

Eibarrentzat mailari eustea iraupen luzeko lasterketa izan zen. Iker Dorronsororen neskek sufritu egin dute, baina azken-aurreko jardunaldian garaipena lortu zuten Logroñon (1-2).



Deportivo Alaves

## DEPORTIVO ALAVESEK LEHEN MAILARA IGOTZEA LORTU DU, ETA ATHLETIC CLUB BK, 2. MAILAN MANTENTZEA



Athletic Club B

**D**enboraldi honek utzi digun albiste handienetako bat Alaves Gloriosa emakumezkoen futbol nazionalako maila gorenera igotzea izan da. Mikel Crespok zuzentzen duen taldea Ipar B Multzoko liderra izan zen, eta ondoren mailaz igotzea lortu zuen.

Gasteiztarrek bigarren fasean partidarik galdu ez zuen Osasunaren presioari eusten jakin zioten. Arrakasta handia Ibaiko klubarentzat, emakumeen taldean egindako ahalegina eta lana saritu baita. Orain lanean hasi behar da hurrengo kanpainen lehiazteko. Maila berean Athletic Bk kanpaina irregularragoa izan zuen. Roberto Pampinen neskak igoera borrokatzeko hiru puntura geratu ziren. Ipar D Multzoan lehiatu behar izan zuten, mailari eusteko eta maila bikaina erakutsi zuten.



## LEHEN MAILA NAZIONALEAN REAL SOCIEDAD B-K EZ DU IGOTZERIK LORTU

*Zubietako taldeak lider bukatu du lehen fasea, atzetik Añorga eta Bizkerre zituela, baina igoerako multzoan atzean geratu ziren.*

**Txemi García**

**E**z da euskal ordezkari berririk egongo Espainiako Zilarrezko Mailan, Pradejon taldea gailendu baitzen gora igotzeko taldean Errea-



San Ignacio-Añorga

la B, Añorga eta Bizkerre ere talde horretan zeuden arren. Errioxarrak menderaezinak izan ziren eta Osasuna Bri irabazi zioten. Txuriurdinek hirugarren amaitu zuten, buru izatetik urrun, Rezo-larenek eta Getxokoek, berriz, ez zuten erregulartasunik izan emaitzetan.

Bestalde, albiste ona irauteko lehian ari zirenen taldetik etorri zen: San Inazio, Aurrera Vitoria, Oiartzun, Tolosa eta Arratia. Taulan hamaika aurkarirekin eta jaitsierako sei plazarekin, borroka gogorra izan zen. Sani puntutartearrekin iritsi zen eta lider izan zen amaierara arte.

Aurrera eta Oiartzun ere ezustekorik gabe igaro ziren eta tolosarrek eta Igorrekoek sufritu egin zuten. Nabarmentzekoa da Urbietaren taldeak lortu zuen garaipena. 9 punturekin iritsi zen eta 35ekin amaitu zuen, Bera-zubikoak adinarekin.

## ATHLETIC CLUB C-EK SD EIBAR B GAINDITU DU ETA EUSKAL LIGA ETA IGOERA LORTU DITU

*Borroka ikaragarria filialen artean, Euskal Liga konkistatzeko. Beste hauek mailaz jaitsi dira: Hernani, Oiartzun B, Sestao River eta Barakaldo.*

**Txemi García**

**A**thletic Club C-k irabazi zuen Eibar Bren aurka Euskal Ligako txapel-dun izateko norgehiagoka. Biek zazpi garaipen eta berdinketa bat lortu zituzten, igoera fasean, beraz, lehen fasean, lehen multzoan, zuri-



Elorrio-Athletic Club C

gorriek lortu zuten puntu bateko abantaila erabakigarria izan zen. Anaitasuna urrun geratu zen, bigarren multzoko liderra izan arren, baina ezin izan zion erritmoari eutsi. Urte ona egin zuten, baina faboritoengandik urrun: Bizkerre B, Zarautz, Leioako B, Elorrio eta Betiko Neskak. Bederatzi talderen jaitsiera faseko lehia ere interesgarria izan zen. Barakaldo eta Sestao River laster geratu ziren aparte. Oraindik bi plaza erabakitzeke zeuden Erregionalera itzultzeko. Borroka gogorra izan zen. Deportivo Alaves B (33) liderraren eta Oiartzun B (27), jaitsi zen zazpigarren taldearen, arteko aldea sei puntukoa izan zen. Hernanik (29) maila galdu zuen Lakuaren puntu berdinekin. Euskal Ligan jarraituko dute: Aurrera Vitoria B (30), Goierri Gorri (32) eta Paldarrak (32) taldeek. Hurrengo denboraldian Euskal Ligan lehiatuko dira: Añorga B, Basauriko Kimuak eta San Martín & Hauskaltz Kirol.



# ATHLETIC CLUBEK GAZTEEN OHOREZKO LIGA IRABAZI DU ETA TXAPELDUNEN KOPAN PARTE HARTUKO DU

*Futbol munduari bete-betean erasan dio covidaren pandemiak, batez ere erregional eta eskola mailan, baina liga autonomikoez aurrera egin dute.*

**Raúl A. Collantes**

**O**horezko Maila 2020-21 denboraldian Athletic Clubek lehen postuan bukatu du; txapelduna izan da. Lezamako futbolariak denboraldi amaiera zirrargarrian erabaki zuten titulua Osasunaren aurka. Sailkapeneko lehen postuetan Lehen Mailako taldeak geratu ziren, Alaves eta Eibar zuri-gorrien eta nafarren atzetik geratu baitziren.

Bilbotarrek, Imanol De la Sotak zuzenduta, Txapeldunen Kopan parte hartzeko aukera izan dute estatu mailan eta talde onenen aurka jokatzekoa ere bai; Lezamakoek Malagaren aurka jokatu zuten. Euskaldunek 2-0 galdu zuten joaneko partidaren eta itzulikoan 3-3 berdindu zuten, ondorioz, lehiatik kanpo geratu ziren.

Gainerako sailkapenei begirata, aurten Gazteen Ohorezko euskal taldeei nola joan zaien ikus dezakegu. Deportivo Alaves, Eibar, Erreala, Danok Bat, Arenas eta Antiguoko taldeek goreneko mailan jarraituko dute datorren denboraldian.

Bestalde, Leioak, Santutxuk eta Aurrera Vitoriak ez dute hain-beste zortea izan eta maila nazionalera jaitsi dira.



Athletic Club

## FILIAL ZURI-GORRIAK ERE GAZTEEN LIGA NAZIONALA IRABAZI DU ETA GETXO ETA TOLOSA IGO DIRA



Athletic Club B

**G**azteen Liga Nazionalean ere Lezaman da txapelduna. Athletic Club Bk, Jon Solaunen gidaritzapean, sailkapeneko lehen postuan amaitu zuen txapelketa Getxo, Erreala B eta Tolosaren aurretik. Filialek ezin dutenez mailaz igo euren taldeak Ohorezkoan daudelako, igoera lortu dutenak

Getxo eta Tolosa dira.

Pandemiaren ondorioz, kategoria horretan ere aldaketak egin behar izan ziren lehiaketaren formatuan. Liga hasteko, taldeak bi multzotan banatu ziren. Horietako bakoitzeko lehen sailkatuak bigarren fasera pasa ziren, gora igotzeko ligaxkara. Gainontzekoak, beste ligaxka batera pasa ziren mailari eusteko lehiatzera; ligaxka honetako taldeak jaitsi dira mailaz. Santutxu B, bere lehen taldea Ohorezkoetik jaitsi delako joan da behera, eta Gazteen Euskal Ligara helduko diren beste taldeak Deustu, Cultural eta Amorebieta dira.





SD Eibar B



Athletic Club

## SD EIBAR TALDEAREN FILIALA, GAZTEEN KATEGORIAN, ETA ATHLETIC CLUB, KADETEETAN, EUSKAL LIGETAKO TXAPELDUNAK

*Eibar B, Galdakao eta Arrupe gazteen taldeak mailaz igo dira eta Liga Nazionalean jokatuko dute. Covidek markatutako kanpaina honetan, ez zen talderik mailaz jaitsi.*

**Raúl A. Collantes**

**E**ibar B taldeak titulu autonomikoa eskuratu zuen gazteen mailan, final handian, Danok Bat C-ri partida bikoitzera irabazita. Finalerdietan armaginek Galdakao kanporatu zuten, eta bilbotarrek, berriz, Arrupe.

Kadeteen mailan, berriz, Athletic Clubek irabazi zuen

final handian, Antiguokori partida bikoitzera irabazita. Finalerdietan, zuri-gorriek Leioa kanporatu zuten. Donostiarrek, bestalde, Reala mendean hartu, eta lehia erabakigarrian sartu ziren. Osasun-pandemiaren ondorioz, denboraldi honetan Liga erregularra jokatu zen, itzuli bakarrera, sailkapeneko behin betiko postuak zein gurutzetatik eratorriko ziren zehazteko.

Gazteen mailan, Eibar B, Galdakao eta Arrupe dira maila nazionalera igo diren hiru taldeak. Euskadiko Futbol Federakundeak erabaki zuen kanpaina hau oso berezia izan denez ez zela talderik mailaz jaitsiko.



## 2 B: OTXARTABEK PLAY OFFA GALDU DU MALLORCAN ETA LASKORAIN, GORA ETA KUKUYAGA JAITSI EGIN DIRA

*Bilboko taldeak play off-a jokatu zuen Mallorcan, baina ezin izan zuen Calvia gainditu eta hor amaitu da mailaz igotzeko ametsa.*

**Carlos Zárate**

Otxartabek igoeraren ametsari agur esan zion Mallorcan jokatuako play offeko lehen kanporaketan.

Bilboko taldeak ezin izan zuen ETB Calvia indartsua gainditu eta Bigarren Mailara igo-

tzeko finaletik kanpo geratu zen. Bilbotarrek bigarren play off-a jokatu dute jarraian eta Errege

Koparen hurrengo edizioa jokatuko dute.

Bestalde, Zierbenak Bigarren B Mailan jarraituko du, eta Las Korainek, Gora Bilboak eta Kukuyagak ezin izan dute maila horretan jarraitu.

Pandemiak markatutako denboraldi zail honetan, taldeak bi multzotan banatuta zeudela, hiru euskal taldeak txapelketaren bigarren zatian sartu ziren salbatzeko borrokan eta, azken jardunaldietara arte Bigarren B Mailan jarraitzeko borrokatu arren, ezin izan zuten lortu.



Otxartabe

### GORA BILBAO FEMENINOAK DENBORALDI BIKAINA EGIN DU

Viuda de Sainz Gora Bilbao taldeak ongi osatu du Bigarren Mailan egin duen lehen denboraldia. Iragan urtarrietik mailari eustea lortuta zuen eta igoera fasea jokatuta, Bilboko taldeak aurreikuspenak bete ditu, eskarmentu handirik gabeko talde gaztearekin. Hala ere, helburua lortu dute, nagusitasun handiz.

## MAHASTIAK LABASTIDA HIRUGARREN MAILAKO TXAPELDUNA DA ETA MONDRATE EUSKAL LIGAKOIA

Mahastiak Bastida taldeak Hirugarren Mailan egindako denboraldi bikainari esker, Bigarren B Mailara jauzi egin du, igoera play offean Union Castreña mendean hartuta. Taldeak 6B multzoko liga irabazi zuen eta bateratzearen ondoren lehenengoa izatea ere lortu zuen. Scorpio, Santurtzi eta Batzarre jaitsi ziren. Euskal Ligan, bitartean, Mondrate izan zen Ligako txapelduna eta Jarrilleros hirugarren mailara igo zen. Sestao eta Uxoak mailaz jaitsi ziren.



Mahastiak



# LAUBURU IBARRA, LIGAKO TXAPELDUNA GAZTEEN OHOREZKO MAILAN

*Aitor Arevalok zuzentzen duen taldeak denboraldi bikaina egin du, Ligako titulua lortu du eta Estatuko txapelketaren aurreko fasea jokatu ere bai.*

**Carlos Zárate**

**L**auburu Ibarra Ligako txapelduna izan zen Ohorezko Mailan. Aitor Arevaloren taldeak gazteen Espainiako txapelketa ere jokatu zuen. 2016/17 denboraldia izan zen Lauburuk txapelketan Ligako txapeldun bezala parte hartu zuen azkena eta pandemiak markatutako kanpaina zail honetan gesta errepikatzea lortu zuen. Ibarra taldearen lehen postuan zeudenez, Galdar talde kanariarraren aurka jokatu zuten Belabietan (5-1) aurreko fasea.



Ibarra

Ondoren, taldea Madrilerara joan zen Valladolid Tiernoren aurkako final-laurdenak jokatzeko. Esperientzia ahaztezina izan zen ibarratarrentzat, 2-5 galdu arren. Azkenean, AE Bellsportek irabazi zuen txapelketa, baina Lauburu Ibarra jokalariek eskarmentu handia lortu zuten, eta jokalaria gisa aurrera egiten jarraitu ahal izango dute.

## KUKUYAGA GAZTE MAILARA IGO DA

**K**ukuyaga gazteak Ohorezko Mailan arituko dira datorren denboraldian. Etxebarriko taldea oso sendoa izan da eta gazteen mailan jokatuko du.



www.surne.es

## ¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...

En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Baja diaria
- Accidentes
- Jubilación
- EPSV
- Ahorro
- Dependencia
- Autónomos
- Inversión

**cmb**  
bizkaiko medikuen elkargoa  
colegio de médicos de bizkaia  
SEGUROS  
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.  
CORRECTORIA DE SEGUROS S.L.

**surne**  
seguros a pensiones

**BILBAO**  
Cardenal Gardoki, 1  
48008 Bilbao  
944 792 200

**SAN SEBASTIÁN.**  
Easo, 7 · 1ºD  
20006 San Sebastián  
943 430 798



# EUSKAL ARBITRAJEA, AMERIKA KOPAN RICARDO DE BURGOSKIN ETA EUROKOPAN ROBERTO DÍAZEKIN

**E**txeko txapelketetan (Liga eta Kopa) ohiko moduan parte hartzeaz gain, Ricardo de Burgos Bengoetxea epailearen eta Roberto Díaz Pérez del Palomar epaile laguntzailearen 2020/21 denboraldian nazioarteko partidak izan dira, hala Championseko nola Europa Leagueko eta selekzioen partidak. Baina euskal arbitrajeko bi ordezkari horiei ekainean iritsi zitzaizen denboraldiko erronka nagusia, biek ala biek kontinente zaharreko eta berriko selekzioen bi txapelketa nagusietan parte hartu zutenean. Alde batetik, De Burgos Bengoetxea Amerika Kopako VAREan izan zen, putzuaren beste aldean. Euskal epailea nazioartean aritu da 2018tik, Lehen Mailan debuta egin eta hiru urtera. Bestalde, Díaz Pérez del Palomar Euro-



kopan izan zen, laguntzaile moduan, Mateu La Hozen arbitrotaldean. Robertok palmares zabala du FIFAKo eskarapelan, Europako hainbat finalekin, joko olinpikoekin eta hainbat katego-

riatako mundialekin.

Bestalde, Olatz Rivera Olmedo izendatu dute nazioarteko epaile, eta Iker De Francisco Grijalba FIFAKo epaile laguntzaile.

## EFF-K AUTOBUSA ESTREINATU DU

**E**uskadiko Futbol Federakundeak eta Goco Tour konpainiak akordio batera heldu dira. Akordio horri esker federazioak bere lehen autobusa dauka, emakumezkoen Euskal Selektzioak estreinatu egin zuena Basque Country International Women's Cup-an.



## FEDERAKUNDEAK KIROL-MATERIALA EMAN DIO GKE BATI

**E**uskadiko Federazioaren konpromisoari jarraituz, Javier Landeta buru duen erakundeak hainbat kirol-material eman zion Kirola eta Garapena GKEari. Gobernu kanpoko erakunde horrek, kirola sustatzeaz gain, hainbat herrialde hegoamerikarretan -Peru, Bolivia eta Ekuador, besteak beste- balioetan trebatzen eta garatzen laguntzen du. Duela bi urte, Epaileen Euskal Batzordeak arropak eta oinetakoak eman zizkion erakunde horri.







**DONOSTIÁN**

31 DE AGOSTO, 16  
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16  
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17  
Tf.: 943 420 919

# AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN  
CON EL DEPORTE  
EUSKALDUN**

# Ibéricos deluxé

*Delicatessen*

**ESPECIALISTAS  
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS  
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en  
San Sebastián (Donostia)  
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja  
Telf.: 943 423 849

[www.ibericosdeluxe.com](http://www.ibericosdeluxe.com)



# MISIÓN NOS GUSTA EL FÚTBOL

MOCHILA  
DE REGALO\*

TARJETA  
VISA  
NAUTALIA  
GRATIS\*

PRECIOS  
Y DTOS.  
ESPECIALES\*  
PARA JUGADORES  
Y FAMILIARES

MEJOR  
PRECIO\*  
GARANTIZADO

FINANCIACIÓN  
HASTA  
EN **10** MESES\*\*

 **VUELTAS** DAN  
MUCHA **VIDA**



**NAUTALIA**  
Bidaiak

\*Consulta condiciones de estas promociones en nuestras oficinas. \*\*Consulta condiciones de financiación sujeta a estudio y aprobación por parte de Santander Consumer Finance S.A.

Pásate por nuestras oficinas y pregúntanos.

**BIZKAIA** | Bilbao | Gran Vía, 75. T. 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1. T. 946 404 028 | Luis Power, 28 (Deusto). T. 946 438 003 | Pza. Santiago, 3 (Casco Viejo). T. 946 414 010 | Las Arenas | Mayor, 4. T. 946 424 682 | Basauri | Pedro Bilbao, 2. T. 946 414 508 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31. T. 946 416 405 | **ARABA** | Vitoria | CC Boulevard. T. 945 103 097 | **GIPUZKOA** | San Sebastián | Urbietta, 47. T. 943 104 924 | Irun | Pz. J.R. Agirretxe, 3. T. 943 104 342 | Eibar | Bidebarrieta, 18. T. 943 108 960 | Rentería | Av. Navarra, 63. T. 943 104 344 | Urretxu | Labeaga, 41. T. 943 109 878 | **NAFARROA** | Pamplona | Serafín Olave, 15. T. 948 104 638